

HITZAK HOTS

Idoia Granizo Uribarrena

Altsasu

Etziren ondorengoa izateaz
damutzen al da etzidamu?
Izan nintzenaren ondorengoa izateaz
damutzen al naiz ni?
Biok batera,
hain ginen epelak,
zoriontasuna, irribarreak
eta bat-batean,
pam,
kolpe hotsa
eta beltza.

Gaua nintzen,
egunean zehar pilatutako oihartzunen isilunea.
Gaua besterik ez.
Zurrumurruak edonon
eta irribarrea malkotan urtuta.

Negua nintzen,
udazkenak hostogabetu gintuen beste narrastion
antzera.

Negua besterik ez.
Orri zurietao liburuz inguraturik
eta idazteko indarra eta luma kendu dizkidatelarik.

Eta berriro ere,
pam,
hatzak hotz
eta hitzak hots.
Hitz apurtuak,
sentimenduak, sentimin,
irribarreak faltsifikatuz.
Eguzkiak ere izozten ninduen,
pam.

Eta pam,
kale zakurrak han,
jolasik gabeko haurtzaroaren hondakinekin jolase-
an.

Eta ni hemen,
orainarena baino izan ez daitekeen espazioan.
Aurrerantz egin nahi dut ihes,
denborak bezala,
oroitzapenen kutxa ireki barik,
baina ezin dut.
Pam.

Nora doaz esan gabe geratu diren pentsamendu
guztiak?
Kutxan sartzen al dira?
Pam.

Ibaiak egarri al dira
nik amesgaizto hau bukatzea desiratzen dudan
bezala?

Itsasoaren lau izkinetatik nabigatzen ikasi dut,
baina mugetatik askatu nahiko nuke.

Pam,
noiz arte?

Pam,
hozberoa epel,
iluna beltz.

Pam,
beste ahots ozenago bat,
konpasio asko,
konpresio gutxi.

Pam, pam, pam.

Non bukatzen dira errepideak?

Beranduegi al da nirea buka dadin?

Hegoak moztu dizkiote hego haizeari?

Erotzen ari al naiz?

Zoro haizearekin bat egin al zuen hegan nire
zoriak?

Galderak erre nahi nituzke,

eskapu egin,

baina,

nola egiten du bere buruaz beste,

burua joan zaionak?

EZIZENA: Hitza